Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

**Servicio de Vivienda**
Alhóndiga, 1 - 1º
31002 PAMPLONA
Tfno. 848 427570

# BIRGAITZE BABESTUA — AÑO 2024

**L.F. 10/2010, de 10 de mayo y D.F. 61/2013, de 18 de septiembre (Modificados por L.F. 22/2016 y L.F. 28/2018)**

- Jarduketa babesgarriak dira 61/2013 Foru Dekretuko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzetan eta etxebizitzetarako eraikinetan egiten diren konpontzeko, hobetzeko eta araudira egokitzeko obrak. Erroldatuta daudenentzako ohiko bizileku iraunkorra izan behar dute etxebizitza horiek, 3 hilabeteko epean okupatu behar dira,haien sustatzaileek zerga betebeharrak beteta izan behar dituzte, eta haien diru sarrerek obren aurrekontu babesgarriaren hamarren bat baino handiagoak izan behar dute.

**ERAIKINAK ETA EGINEN DIREN OBREK BETE BEHAR DITUZTEN ZENBAIT BALDINTZA:**

- Eraikinak 20 urte baino gehiago izatea, desgaitasunak dituzten erabiltzaileentzat edo nahitaezko arau teknikoetara egokitzeko badira salbu.
- Eraikinaren azalera erabilgarriaren % 50 baino gehiago, beheko solairua eta sestrapekoa salbu, etxebizitza izanen da.
- Eraikina ez da erabat hustuko, eta ez da forjatuen % 60 baino gehiago eraitsiko, gainjarriko edo ordeztuko, estalkia salbu.
- Ez dira etxebizitza berriak sortuko (edo daudenak handitu) 120 m² erabilgarri gaindituta.
- Ez egotea ez legezko ez hirigintzako eragozpenik, obra-lizentzia eskuratzeko eta obra gauzatzeko.
- Obraren aurrekontu **babesgarria 2.000 €/etxebizitza baino handiagoa izatea.**
- Aurrekontu **babesgarria ez izatea hau baino handiagoa m² erabilgarri bakoitzeko:** Etxebizitza: **1.959,84 €** Eranskinak: **783,94 €**
- Aurrekontu **babesgarria** ez da hau baino handiagoa izanen m² erabilgarri bakoitzek*o*: Etxebizitza: **753,79 €** Eranskinak: **301,51 €**
- Kalifikatu beharreko obrak hasita ez egotea, eta behin-behinean kalifikatu zirenetik, gehienez, 36 hilabeteko epean gauzatzea. Aurrekontu babesgarria 10.000 €-tik gorakoa ez bada, obrak behin-behineko kalifikazioa eskatu ondoren hasi ahal izango dira, eta 9 hilabeteren buruan bukatu.
- Lehendik Dagoen Eraikinaren Liburua (DEL) izatea eraikinak 50 urte baino gehiago baditu.
- Eraikinaren egitura sendotzen bada, oztopoak ezabatzen badira edo eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzen bada, DEL bat aurkeztuko da.
- Ez dira aurrekontu babesgarriaren barnean sartuko egiturazko obren ondoriozkoak ez diren akabera pribatiboak, bizigarritasun baldintzak edukitzea ahalbidetzen dutenak edo oztopoak kentzea, betiere haien ordezteko balioaren arabera.

**DIRULAGUNTZEN EZAUGARRIAK:** (1) **(Dirulaguntza arruntentzat, ikus beheko koadroa)**

- **Zenbatekoa**: Diruz lagungarri den aurrekontuari buruzko koadroetan dago adierazita ehunekoa

| **AUZOTARREN ERKIDEGOAK: Oztopoak kentzea**, erkidegoak sustatuta: Eraikinaren urteak=> | **20 urtetik gora** |
|---|---|
| - Oztopoak erabat kentzea, igogailurik gabeko eraikinak: (Gehienez, 10.000 €/etxebizitza; 13.000 €/etxebizitza, 11 etxebizitza baino gutxiago badaude) | **60%** |
| - Oztopoak erabat kentzea, igogailua duten eraikinak: (Gehienez, 6.000 €/etxebizitza) | **40%** |
| - Igogailurik gabeko eraikinak, oztopoen araudira erabat egokitu gabe: (Gehienez, 7.000 €/etxebizitza) | **40%** |
| - Igogailua duten eraikinak, oztopoen araudira erabat egokitu gabe: (Gehienez, 3.000 €/etxebizitza) | **20%** |
| - Esku-hartze orokorreko proiektuetan, dirulaguntza gehigarri bat jasoko dute: proteger | **5%** |
| **AUZOTARREN ERKIDEGOAK: Eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzea**, erkidegoak sustatuta (gehienez, 6.000 €/etxebizitza) | **40%** |
| - Inguratzaile termikoa hobetzea esku-hartze orokorreko proiektuetan (gehienez, 7.500 €/etxebizitza) | **50%** |
| - Instalazio termiko zentralizatuen efizientzia hobetzea, EA-OD-EKT-2ra egokituta (gehienez, 6.000 €/etxebizitza) | **40%** |
| - Etxebizitzen barrengo berokuntza-instalazioari eraztunak jartzea eta kontagailua instalatzea (gehienez, 3.000 €/etxebizitza) | **20%** |

**OHIZ KANPOKO DIRULAGUNTZAK PERTSONA FISIKOEI:** (Gehienez, 13.000 € edo 26.000 € etxebizitza familiabakarretan edo Lehentasunez Zaharberritu beharreko Eremuetan)

| | |
|---|---|
| - Diru-sarrerak SARA baino 2,5 aldiz txikiagoak eta gutxienez % 40ko desgaitasuna duen pertsonaren **etxebizitza egokitzea**: | **50%** |
| Sustatzaileak, diru-sarrerak SARA halako 2,5 eta 3,5 artekoak dituztenak: | **40%** |
| **- 65 urtez gorako edo 35 urtez azpiko sustatzaileak edo ezkontideak**, diru-sarrerak SARA baino 2,5 aldiz txikiagoak dituztenak: | **45%** |
| Sustatzaileak, diru-sarrerak SARA halako 2,5 eta 3,5 artekoak dituztenak: | **30%** |
| **- Lehentasunez Zaharberritu beharreko Eremuak:** (Sustatzaile-erabiltzaileak, diru-sarrerak SARA baino 2,5 aldiz txikiagoak dituztenak). | **45%** |
| Sustatzaile-erabiltzaileak, diru-sarrerak SARA halako 2,5 eta 3,5 artekoak dituztenak: | **30%** |
| - **Familia ugariak:** Kategoria orokorrekoak badira, dirulaguntza gehigarri bat jasoko dute (3): | **5%** |
| Kategoria berezikoak badira, dirulaguntza gehigarri bat jasoko dute (3): | **10%** |
| **- Biktimak**, terrorismoarenak, genero-indarkeriarenak edo Gizarteratze Errentaren hartzaileak, baldintzen arabera (3): | **5%** |

**ERRENTAMENDURAKO SUSTATZAILEAK:** (Gehienez, 12.000 €/etxebizitza) Errentamendura bideratu beharko dira gutxienez 5 urtez, behin betiko kalifikazioaren datatik hasita.

| Eraikinaren urteak=> | **50 urtetik gora** | **20 urtetik gora** |
|---|---|---|
| - Lehentasunez zaharberritu beharreko eremua eta hileko errenta ondokoa baino apalagoa 6,53 o 6,17 €/m². (4) | **40%** | **11%** |
| Gehienezko dirulaguntza, m² erabilgarri bakoitzeko (gehienez, 120 m²): | 391,97 € | 105,53 € |
| - Eraikinak, hileko errenta ondokoa baino apalagoa dutenak: 6,53 o 6,17 €/m² (4) | **22%** | **11%** |
| Gehienezko dirulaguntza, m² erabilgarri bakoitzeko (gehienez, 120 m²): | 211,06 € | 105,53 € |

**DIRU-SARRERA PONDERATUEN TAULA (€)** Zerga-oinarriaren zati orokorra, eta zerga ordaintzetik salbuetsita dauden errentak

| Familiako kide kopurua (2) | Urketo PFEZ aitorpena ( € ) 2022 SARA baino zenbat aldiz handiagoa: **2,5** | **3,5** |
|---|---|---|
| 1 pertsona | 24.194,34 | 33.872,07 |
| 2 pertsona | 32.259,11 | 45.162,76 |
| 3 pertsona | 34.563,34 | 48.388,67 |
| 4 pertsona | 36.658,08 | 51.321,32 |
| 5 pertsona | 39.023,12 | 54.632,37 |
| 6 pertsona | 41.714,37 | 58.400,12 |
| 7 pertsona | 44.804,32 | 62.726,05 |
| 8 pertsona | 48.388,67 | 67.744,14 |
| Eraikina: | **DIRU-SARREREN ARABERAKO DIRULAGUNTZAK** (Sustatzaile-erabiltzaileen diru-sarreren zutabea)(1) | |
| 50 urtetik gora | 20% | 10% |
| 25 eta 50 urte artean | 10% | 5% |

(1): Familiako diru-sarrera ponderatuak ez badira iristen aurrekontu babesgarriaren hamarren batera, ez da egonen izaera pertsonaleko dirulaguntzak eskuratzeko eskubiderik
(2): Desgaitasuna duen pertsonaren bat badago familia unitatean, pertsona bat gehiago kontatuko da, eta berdin jokatuko da 65 urtez gorako pertsonaren bat edo genero indarkeriaren biktimaren baldin badago.
(3): Ehuneko gehigarriak ezin izanen dira metatu.
(4): Kontuan hartuta Iruñea eta Iruñerria, Tutera, Lizarra eta Tafalla edo Nafarroako gainerako herriak diren, hurrenez hurren.

- Orri honen edukia informatiboa da soilik; izan ere, jarduketa babesgarrien erregulazioa gorburuan aipatutako legezko xedapenek arautzen dute.
- Argibide gehiagorako: www.vivienda.navarra.es

Inprimaketa-data: 08/01/24
Datu horiek data honetatik aurrera aplika daitezke: 01/01/24